DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Pertsonen Kudeaketa
Gestión de Personas
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

# INFORMAZIO OHARRA
# ADMINISTRARIEN LEP

Administrari-plazetan (C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala) karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesuaren etorkizuneko deialdiarekin lotuta jasotako kontsulten aurrean, jakinarazten da deialdia datorren urtarrilean onartzea aurreikusten dela, berariazko oinarriekin batera. Jarraian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) eta Udalaren webgunean ("lan-eskaintza" atalean) argitaratuko da.

GAOn eta web-orrian aipatutako argitalpenak egin ondoren, deialdiaren iragarkiaren laburpen bat argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta une horretan irekiko da eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik bi hilabete igaro baino lehen ez dira hasiko hautaprobak.

Txanda irekiko **63 plaza** deituko dira guztira, eta plaza horietako **5 desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta daude**. Deitutako plaza-kopurua handitu ahal izango da hautaketa-prozesuan zehar.

Hautaketa-prozesua arautzeko, oinarri espezifikoak (adierazi dugu urtarrilean onartzea aurreikusten dela) eta oinarri orokorrak hartuko dira kontuan. Azken horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 118. zenbakian, 2020ko ekainaren 24an. Hala ere, gai-zerrenda orokorra

# NOTA INFORMATIVA
# OPE ADMINISTRATIVOS/AS

Ante las consultas recibidas en relación con la futura convocatoria del proceso selectivo para el ingreso como funcionarios/as de carrera en plazas de Administrativo/a (Subgrupo C1, Escala de Administración General), se informa que la previsión es que el próximo mes de enero se apruebe la convocatoria junto con sus bases específicas. Acto seguido, se procederá a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG) y en la página web del Ayuntamiento (en el apartado “Oferta de empleo”).

Tras las citadas publicaciones en el BOG y en la página web, se publicará un extracto del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial del Estado, momento en el que se abrirá el plazo de presentación de instancias. Las pruebas selectivas no darán comienzo antes de dos meses contados a partir de la finalización del plazo de presentación de instancias.

Se convocarán un total de **63 plazas** por turno libre, estando **5 de esas plazas reservadas a personas con discapacidad**. El número de plazas convocadas se podrá ampliar durante el proceso selectivo.

El proceso selectivo se regulará por las bases específicas (que ya hemos señalado que se prevé que se aprueben en enero) y por las bases generales. Estas últimas se publicaron en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 118, de fecha 24 de junio de 2020. No obstante, el temario general fue corregido y se encuentra publicado en el Boletín Oficial

10740n XVII

| | |
|---|---|
| zuzendu egin zen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 139. zenbakian, 2020ko uztailaren 23an. Bi testuak eransten dira. | de Gipuzkoa nº 139, de 23 de julio de 2020. Se adjuntan ambos textos. |
| Oposizio-faseko probak prestatzeko, oinarri orokorretan C1 azpitaldeari dagozkion zortzi gaiak hartu behar dira kontuan. Gainerako gai-zerrenda (berariazko gai-zerrenda) deialdiarekin batera onartuko diren oinarri espezifikoetan sartuko da. | Para la preparación de las pruebas de la fase de oposición se deberán tener en cuenta los ocho temas correspondientes al subgrupo C1 que se encuentran en las bases generales. El resto del temario (temario específico) formará parte de las bases específicas que se aprobarán junto a la convocatoria. |

Donostian, 2020ko abenduaren 18an.

PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Maribel Íñiguez Azurmendi

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Maribel Iñiguez (18/12/2020 09:24 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 38c27e7f-0341-4681-ad9f-49547aa6414f